


Haurdunaldi, jaiotza eta adingabekoen zaintzagatiko baimenen gida



Aurkibidea

■ Amatasun eta aitatasun baimenen funtzionamendua	3
Haurdunaldian edo harrera-prozesuan	
Haurdunaldiagatiko lizentzia (37. edo 35. astetik aurrera, haurdunaldi anizkoitza bada)	
Jaiotzaren, adopzioaren edo harreraren osteko lizentzia	
3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia berezia	
Edoskitzea	
Beste baimen batzuk	
■ Haurdunaldiko edo harrera-prozesuko baimenak eta lizentziak	4
Ernalketa lagunduko prozesuetan parte hartzeko baimena	
Jaio aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko teknikak	
Adopziorako edo harrerarako prestatzeko informazio saioretara joatea	
Baja medikoa (aldi baterako ezintasunagatik)	
Lanpostuak arriskua dakarrenean ematen den baimena	
■ Jaiotza, adopzioa edo harreragatiko lizentzia	6
Ezaugarriak	
Adopzio eta harrera kasuak (11/2009DF, 24. NAO (11.4))	
Baimenaz disfrutatzeko modu ezberdinak/aukerak	
Baimena eskatzeko prozedura	
Gurasotasun baimenak oporrekin bat egiten badu, zer?	
■ ATPrako guraso-lizentziaren berezitasunak	10
ATPren eskaintza masiboak ekainean eta irailean	
Zer gertatzen da udan baimen bat disfrutatzen egonda, irailean ezin bada plazarik hartu?	
Eskeinitako lanpostuak ez badira nire interesekoak, LET-an parte hartzea derrigorrezkoa da?	
■ Praktikaldiaren atzerapena	10
■ Edoskitzea	11
Edoskitzeagatiko baimena hartzeko moduak	
Interinoen kasuan	
Edoskitzeak arriskua dakarrenean, eskaera berezia egin behar da	
Edoskitzea-eszedentzia bateraezintasuna	
■ Familia laguntza ezberdinak	12
Seme-alabengatik familia laguntza	
Behar bereziak (fisiko edo psikikoak) dituzten seme-alabengatik laguntzak	
Diru-sarrerarik ez duen ezkontide edo bikotekide egonkorragatik diru laguntzak	
Prestazio ekonomikoak (MUFACE)	
Nafarroako Gobernuak ematen dituen dirulaguntzak	
■ Lizentziak, ordaindu gabeko baimenak eta eszedentziak	14
Enplegu banaketarako baimena	
12 urtetik beherakoak zaintzeko lanaldi-murrizketa	
Eszedentzia	
Beste baimen batzuk	
■ Beste baimen batzuk	15
Familia legea	

Amatasun eta aitatasun baimenen funtzionamendua

1. Haurdunaldian edo harrera-prozesuan



1.1. Honako hauetan parte hartzeko baimena:

- Lagundutako ernalketako prozesuak.
- Jaio aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko teknikak.
- Adopzioari edo harrerari buruzko informazio-saioak.

1.2. Baja medikoa (aldi baterako ezintasunagatik)

1.3. Lizentzia, lanpostuak arriskua dakarrenean

2. Haurdunaldiगतिको lizentzia (37. edo 35. astetik aurrera, haurdunaldi anizkoitza bada)

Haurdun dauden emakumeek* lizentzia ordaindua hartzeko eskubidea izango dute haurdunaldiko 37. astetik erditze egunera arte (edo 35. astetik aurrera haurdunaldi anizkoitzen kasuan).	Eskaera instantzia 	Nola egiten da eskaera? → Instantzia bidez egin behar da eta horrekin batera haurdunaldiaren 37. edo 35. astea hasia dela ziurtatzeko mediku txostena aurkeztu behar da. → Gutxienez lizentzia hasi baino 10 egun lehenago egitea gomendatzen da. → Amatasun-partea.	Amatasun-partea 
---	--	--	---

3. Jaiotzen, adopzioaren edo harreraren osteko lizentzia

- Haurra jaiotzen den egunetik disfrutatzen da, 6 aste nahitaez erditu ondoren eta lanaldi osoan; gainontzeko 11 asteak lehenengo urtean (10 aste kontratua lehenago amaitzen bada, eta 13 aste gehienez, ospitaleratuta jarraitzen badu).
- Gozatzeko moduak: **a/** Zatituta. **b/** Lanaldi partziala (1/2 edo 1/3).

4. 3 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko eszedentzia berezia

- Edoskitzea disfrutatu aurretik eskatzea komeni da, dagozkion egun kopurua lan egindako egunen araberakoa bait da, eta beraz, alderantziz eginez gero, dirua bueltatu beharko litzatekeelako.

5. Edoskitzea

- Urtebete bete arte.
- Jaiotza, adopzio edo harreragatik lizentzia agortuta egon behar da.
- Gozatzeko moduak: **a/** Zatituta (1 o/egun). **b/** Etengabe.

6. Beste baimen batzuk

- Ordaindu gabeko lizentziak eta baimenak: enplegua banatzeko baimena.
- 12 urtetik beherakoak zaintzeko lanaldi-murrizketa.
- Zerbitzu-eginkizunak 6 urtetik beherako haurrak ardurapean dituzten funtzionarioentzat eta etxetik 50 kilometro baino gehiagora dauden funtzionarioentzat.
- Ezkontzagatik, hamabost egun naturaleko lizentzia ordaindua hartzeko eskubidea izanen dute, opor arruntei gehitzen ahal zaiena.
- Eskubide bereziak dituzten adingabeentzako arreta.
- Hezkuntza Bereziko zentroetan dauden adingabeei arreta ematea.

* **STEILAS**en legeak baliatutako emakumea eta ama biologikoa terminoa erabili badugu ere, errealitatea kontzeptuak jasotzen duen esanahia baino askoz ere zabalagoa dela ulertzen dugu.

Ernalketa lagunduko prozesuetan parte hartzeko baimena

- Teknika horietan parte hartzeko ezinbestekoa den denbora.
- Praktika jardunaldiaren barruan egiteko beharra aldeztetik frogatu behar da.

Dokumentazioa

→ Ernalketa egin izanaren ziurtagiria ernalketa zentroan eskatu behar da eta hau ikastetxeko zuzendaritzan aurkeztu.

Jaio aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko teknikak

- Praktika horietan parte hartzeko ezinbestekoa den denbora.
- Praktika jardunaldiaren barruan egiteko beharra aldeztetik frogatu behar da.

Dokumentazioa

→ Azterketa edo prestaketa egin izanaren ziurtagiria zentroan eskatu behar da eta hau ikastetxeko zuzendaritzan aurkeztu.

Adopziorako edo harrerarako prestatzeko informazio saioetara joatea

- Saioetan parte hartzeko ezinbestekoa den denbora.
- Informazio saioak jardunaldiaren barruan egiteko beharra aldeztetik frogatu behar da.

Dokumentazioa

→ Informazio saioetara joan izanaren ziurtagiria zentroan eskatu behar da eta hau ikastetxeko zuzendaritzan aurkeztu.

Medikuaren baja (aldi baterako ezintasunagatik)

- Edozein unetan eska daiteke, behar izanez gero.
- Gizarte Segurantzaren erregimeneko langileak (interinoak): mediku parte hartuko du baina Gizarte Segurantzaren izango da Hezkuntza Departamentuari datuak bidaltzeaz arduratuko dena, 2 edo 3 egunetan EDUCAn agertuko direlarik (langileak ez du ez baja parterik ez baieztapen parterik ere aurkeztu behariko bajaren lehenbiziko 365 egunetan).
- MUFACE erregimeneko langileak: momentuz ez dago aldaketarik, baina paperezko baja parte, baieztapen parte eta alta parte formatu elektronikoarekin ordezkatzeko konpromezua dago. Hortaz, Hezkuntza Departamentuan dokumentazio originala eta zentroan dokumentazioaren kopia aurkezten jarraitu behar da.

Lanpostuak arriskua dakarrenean ematen den baimena

→ Lanpostuaren baldintzek haurdun dagoen emakumearen* osasunean edota fetoaren osasunean negatiboki eragin dezaketela uste bada interesatuak bere lanpostuaren arriskuak baloratzea eska dezake.

→ Tramite hau eskatzeko ezin da baja egoeran egon.

→ Lan Osasunetik ebaluazioa egin eta beharren arabera neurriak hartu ohi dira.

→ Prozesua martxan jartzeko Laneko Arriskuen Prebentziorako atalera deitu, ☎ 848 423 769 eta medikuaren txostena eskatu.

→ Honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. Osasun-txartela.
2. Emaginaren txostena, aurreikusitako erditze-datarekin.
3. Serologia, errubeola eta toxoplasmosiaren fotokopia.

Eskaera prozesua:

1. Langileak "Laneko baldintzak ebaluatzeko eskaera" orria bete behar du.
2. Lan Arriskuen Prebentzioak informea eginen du (elkarrizketa interesatuarekin eta lanpostuaren errebisioa).
3. Informea langileari bidaliko diote honek Mutua Navarrari igortzeko.
4. Mutua Navarrak kasua ebatziko du. Ebazpena gehienez 15 egunetan eginen da.

ADI!

Ebazpena ateratzeko ezinbestekoa da langilea alta egoeran egotea.

Baja egoeran baldin badago erresoluzioa ez zaio langileari jakinaraziko. Mutua Navarrak erabakia hartuta izango du eta erresoluzioa prest egongo da, baina ez zaio ezer jakinaraziko langileari altan egon arte.

Osasuna ebaluatzeko eskaera



Laneko baldintzak ebaluatzeko eskaera



MUFACEren haurdunaldi eta edoskitze naturaleko arriskuarengatik sorospena eskatzeko inprimakiak



Baimenaren berezitasunak

→ **MUFACE funtzionariak:** onartuz gero, lanpostuaren egokitzea eginen zaie, ikastetxean bertan irakaskuntza zuzenekoak ez diren lanetan birkokatuz.

→ **Interinoak:** baimena eskatu eta onartuz gero Hezkuntzarekin kontratua moztu eta Mutua Navarrak soldataren %100 ordainduko die (antzinatasuna, gradua... ere kobratzen dira).

Behin umea jaiota, erditzeagatiko baimena eskatuko da eta orduan Hezkuntza Departamentuarekin kontratua indarrean sartuko da berriro ere. Horrela, 17 astez disfrutatuko ahalko du erditzeagatiko baimena.

Aurreikusitako erditze data baino 10-15 egun lehenago, ordainketa moztzen dute. Umea jaio eta gero, falta diren egunen ordainketa jasotzeko, mutuan erditze data zehazten duen ospitaleko dokumentazioa aurkeztu beharko da.

→ Eskaera funtzionari edo interinoek egin dezakete.

→ Lizentzia hau udako hilabeteetan disfrutatzen bada ez du disfrutatu gabeko oporrak eskatzeko eskubiderik ematen.

Jaiotza, adopzioa edo harreragatiko

Ezaugarriak

- Lizenziaren iraupena, guztira, 17 astekoa da (2 aste gehiago, anizkoitza bada edo premia bereziak badaude). Umeak urtea bete arte disfruta daiteke.
- 16 aste Gizarte Segurantzak ordaintzen ditu eta 17. astea Hezkuntza Departamentuak.
- Eskaera Erregistro Orokor Elektroniko bitartez egin behar da, Kontrol Administratiboaren atalera bideratuta. Lizenziaren hasiera jakinarazteko 5 eguneko epea dago.
- **Baimenaren hasiera:** jaiotze, harrera edo adopzioaren egunean. Lehenengo 6 asteak derrigorrezkoak dira, eta jarraian hartu behar dira. Ezin dira modu partzialean disfrutatu eta hala ez egitekotan baimen osorako eskubidea galtzen da.
- Baimena bi gurasoendako da, bakoitzak disfrutatzen du modu independentean.
- Haurra lehenago jaiotzen bada (37.astea baino lehen) edota jaio eta beherala ingresatuta gelditu behar bada, egun horiek hasierako 6 asteetako blokeari gehituko zaizkio gehienez ere 13 aste erantsi arte.
- Gainontzeko 11 asteak lehenengo urtearen barruan disfrutatu daitezke ondoko ondoko 7 egun naturaleko blokeetan, eta 15 eguneko aurreabisua emango da berriz hartu nahi den bakoitzean.
- Jaio eta urtebetera, disfrutatu gabeko lizentzia egunak galtzen dira eta ezin da inolako konpentsaziorik eskatu (ez ekonomikoa ez jaiegunetan).
- Lizentzia bukatu gabe kontratua bukatzen bada, Gizarte Segurantzak ordaintzen du 16 aste osatu arte.
- Hezkuntza Departamentuarekin kontratu berririk sinatzen ez bada 17. astea disfrutatzeke eskubidea galduko da.
- Baimenaz disfrutatzen den bitartean esperientziarako, antzinasunerako eta kotizaziorako puntuatzen da.

Adopzio eta harrera kasuak (11/2009 FD, 24. NAO (11.4))

→ **Nazioarteko adopzioetan:** 2 hilabete arte jatorrizko herrialdera aurretik joan edo bidaiatzeko aukera. Ebazpena baino 4 aste lehenago hasi ahal izango da.

Adopzio ebazpena aurkeztu behar da.

Oinarrizko soldata soilik kobratzen da.

→ **Harrera sinpleen kasuetan:** harrera urtebetekoa izan behar da gutxienez.

Instantzia



Baimenaz disfrutatzeke modu/aukera ezberdinak

Lanaldi partzialean disfrutatzea (lanaldi erdian)

- 6. astetik aurrera lizentzia denbora partzialean disfruta daiteke.
- Modu partzialean disfrutatzen denean, baimenaren iraupena luzatzen da modu proportzionalan. Hau da, 11 aste lanaldi partzialean disfrutatzeke eskaera eginez gero, baimena 22 astez luzatuko da.
- Lizentzia modu partzialean disfrutatzen egonda, aukera dago modu ez-zatituan ere eskatzeko.
- Bikotearen egoera (laktantzia, eszedentzia, aktiboan...) ez da kontuan hartzen baimena denbora partzialean disfrutatzeke, guraso bakoitzaren baimenak modu independentean kudeatzen dira.
- Formakuntzetan parte hartu daiteke.
- Lanaldi murrizketa eskatu bada, ezin da lizentzia/baimena modu partzialean disfrutatu. Aldiz, kontratua osoa ez bada baina ez bada murrizketarik eskatu (hasieratik horrela eskeini delako, adibidez %80ko lanaldia), aukera dago baimena modu partzialean disfrutatzeke.

Modu ez-jarraian (astebeteko blokeetan zatitua) disfrutatzeke

- 6. astetik aurrera, baimena modu ez jarraian disfruta daiteke. Ez jarraian disfrutatzeke blokeak gutxienez astebetekoak izan behar dira. Eskaera 15 eguneko epearekin egin behar da gutxienez.
- Nahi bezainbeste zatitan bana daiteke baimena, betiere astebeteko blokeetan hartzeke baldintza errespetatuz.
- Modu ez jarraian disfrutatzeke, zure bikotekideak baldintza hauetako bat bete behar du, gutxienez:
 - Lan kontratua izatea.
 - Erditzeagatiko lizentziaz disfrutatzen egotea.
 - Langabezi prestazioa kobratzen egotea.
- Eskaera egitean Departamentuak bikotekidearen egoera egiaztatzen du.
- Eskaera bakoitzean zehaztu behar da blokearen iraupena (hasiera eta bukaera data). Aldez aurretik bloke guztien data jakitekotan, hasieratik denak jakinarazi daitezke eta horrela geroko eskaera berria egitea ekidin (hasieratik denak jakinaraztea ez da derrigorrezkoa).
- **Garrantzitsua:** baimena modu ez jarraian disfrutatzeke asmoa baldin baduzu gurasotasun baimenaren lehenengo eskaeran adierazi behar duzu.

Jaiotza, adopzioa edo harreragatiko lizentzia

Baimena eskatzeko prozedura

Dena telematikoki egin daiteke. Presentzialki egin nahi izanez gero alde zuzenetik hitzordua zehaztea beharrezkoa da.

Funtzionarioak

Onardunen
alta, aldaketa
eta bajak



→ Soilik Hezkuntza Departamentuan aurkeztu behar dira dokumentuak, ez Gizarte Segurantzaren.

→ Eskaera orria.

→ Amatasun txostena (ospitalean eskatu).

→ Ziurtagiri Digital Indibiduala (familia-liburua ordezkatzeko duena): Eskaera, haurra jaio ondorengo orduetan izena eman duen udalerriko erregistro zibilean edo online egin daiteke, haurraren izen-deiturak, jaioteguna eta gurasoen izena (datu hau bereziki garrantzitsua da erditu ez duen pertsonaren kasuan) zehaztuta.

→ Onuradunen alta bi modutara egin daiteke:

1. Egoitza elektronikoaren bidez: <https://muface.sede.gob.es/login>

2. Mufaceko bulegoetan.

https://www.muface.es/muface_Home/atencion-al-mutualista/nuestrasOficinas.html

Interinoak

→ Haurra jaio eta bi organismo ezberdinetan eskatu behar da baimena.

→ **Hezkuntza Departamentua.** Honako dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskaera orria

- Amatasun txostena.

- Ziurtagiri Digital Indibiduala (familia-liburua ordezkatzeko duena): Eskaera, haurra jaio ondorengo orduetan izena eman duen udalerriko erregistro zibilean edo online egin daiteke, haurraren izen-deiturak, jaioteguna eta gurasoen izena (datu hau bereziki garrantzitsua da erditu ez duen pertsonaren kasuan) zehaztuta.

- Dokumentuak erregistro orokorraren bidez entregatuz gero, zehaztu hartzaile gisa Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzua ☎ 848 423 769.

- Alta parte (erditzen duen pertsonaren kasuan).

→ **Gizarte Segurantzaren:**

- Departamentuan eskaera aurkeztu denetik gutxienez 3-4 egun pasa behar dira Gizarte Segurantzaren eskaera egin ahal izateko (korreo elektroniko bat jasoko da eskaera egin daitekeela adieraziz).

- Gizarte Segurantzaren ordainketak arduratzen da.

- Eskaera egin eta hilabetera gutxi gorabehera, Hezkuntza Departamentuaren baimenaren baiezkotza jasoko du eskatzaileak.

Gurasotasun baimenak oporrekin bat egiten badu, zer?

- Opor eguntzat hartzen diren bakarrak uztaila eta abuztukoak dira. Gainontzeko festa egunak (gabonak, inauteriak, aste santua...) ez dira opor eguntzat hartzen baizik eta "lan egun ez lektibotzat".
- Baimenak lan egun ez lektiboekin bat egiten badu, ez dago konpentsaziorik eta egun horiek galtzen dira.
- Baimenak udako oporrekin bat egiten badu, egun horiek disfrutatu gabeko opor egunak bezala hartuko dira. Betiere honakoa kontuan hartuta: Udan (uztaila, abuztua) 27 opor egun ez badira disfrutatu, lanegun horiek konpentsatzea eskatzeko eskubidea dago (astelehen-ostiral, asteburu eta jai egun ofizialak izan ezik).
- Konpentsazio eskaera instantzia bidez egiten da. Onartzekotan horrela aplikatzen da:
 - **Funtzionarioak:** konpentsatzeaz dauden opor-egunak lanera itzuli aurretik hartu behar dira, edo amatasunagatiko/aitatasunagatiko lizentziaren ondoren, edo edoskitzerako azken egunaren ondoren. Ezin dira beste une baterako gorde.
 - **Interinoak:** disfrutatu gabeko opor egunen ordainketa eskatu (instantzia, nomenen atalera) behar da. Ez dago egun horiek disfrutatzeko aukerarik.
- **Kontrol Administratiboaren Atalean** (☎ 848 423 901) kalkulatuko dute zenbat egun diren eta dagokion konpentsazioa.

Adibideak

- Baimena uztailaren 31an bukatzen bada abuztuan 22 jai-egun ez disfrutatuko luke gurasoak. Konpentsazioa 27 jai-egunetara iristeko falta diren egunak izango lirateke, kasu honetan 5 egun. 5 egun horien konpentsazioa eska dezake gurasoak.
- Baimena uztailaren 9an bukatzen bada, uztailan 15 jai-egun izango lituzke eta abuztuan 22 jai-egun. Kasu horretan, udan 37 jai-egun ez disfrutatuko luke eta ez luke konpentsazioa eskatzeko eskubiderik izango (uztailaren 1-9 bitarteko jai-egunak "galduko" lituzke).

Lanpostuen Esleipen Telematikoak (LET)

- Gurasotasun baimenaz disfrutatu bitartean LETan parte har daiteke.
- Ekaineko esleipen masiboetarako interino guztiak jartzen dituzte "prest" LETan.
- Lanposturen bat esleituz gero, ikastetxera deitu eta gurasotasun baimenaz disfrutatzen ariko zarela abisatu, lanpostuaren erreserba egin diezazuten.
- Ez da lanpostura inkorporatu beharrik erreserba gauzatzeko. Baimena bukatu bitarte lanpostuaren erreserba egiten dute eta denbora tarte hori (lanpostua hartuta eta baimenaz disfrutatzen egondakoa) lan egindako denboratzat hartzen da, efektu guztietara, hau da, esperientziarako, antzintasunarako eta kotizaziorako puntuatzen jarraitzen da.
- Behin baimena bukatuta lanpostura itzuli behar da. Hartu ez diren oporrak dagokion nominan ordainduko dira.
- "Enpleguaren banaketarako" baimena hartzeko LET-an parte hartu daiteke, lanpostura bueltatu eta kontratua aurrera eramateko aukera ematen duelako.

Baimena disfrutatu bitartean kontratua bukatzen bada, zer?

- Baimena kontratua bukatzean mozten den arren, kobratzen jarraitzen da 16. astera arte (Gizarte Segurantzak ordaintzen duelako 16. astera arte), 17. astea ez da kobratzen (Hezkuntza Departamentuak ordaintzen baitu). Bitarte honetan lanpostu bat hartzen bada, lanera inkorporatu arte erreserbatzen dute.

Eskeinitako lanpostuak ez badira nire interesekoak, LET-an parte hartzea derrigorrezkoa da?

- "Ez prest" jarriko zaituzte gurasotasun baimena bukatu arte. Behin baimena bukatuta eska dezakezu "prest" egoerara bueltatzea.

Praktikaldiaren atzerapena

- **Erditze, adopzio, adopziorako zaintza edo harrerarako lizentzia edo ama biologikoa ez den guraso-baimena duten izangaientzat.**

(12/2023 Foru Legea, martxoaren 29koa, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena.)

Geroratzea aukeratuz gero, lanpostuaz jabetzeko edo kontratua sinatzeko epea lizentzia hartu ondoren hasiko da zenbatzen, edo lehenago, hala eskatzen bada, betiere erditzearen ondorengo nahitaezko atsedaldiak errespetatuz.

Kargua hartzen denean, emandako zerbitzutzat hartuko da atzeratutako denbora, eta aldi baterako kontrataziorako deialdietan ere kontuan hartuko da.

→ Umeak urte bat bete arte disfruta daiteke baina baimen egunen kopurua aldatuko da eskaera dataren arabera.

→ Edoskitze baimena disfrutatzeko aurretik gurasotasun baimen osoa disfrutatu beharra dago.

→ Bi gurasoek dute lizentzia hau erabiltzeko eskubidea. Ezin zaizkio egunak beste gurasoari utzi. Baimen independenteak dira; bikotearen egoerak ez du eraginik baimen eskaeraren onarpenean.

→ Eskaera **instantzia** bidez egin behar da. Eskaera orriarekin batera Erregistro-ziurtagiri indibidualaren (familia-liburua ordeztan du) fotokopia aurkeztu behar da. 15 eguneko aurreabisuarekin egitea gomendatzen da.

Instantzia



Edoskitzeagatiko baimena hartzeko moduak

Modu zatituan: egunero ordu 1 lanaldiaren hasieran edo amaieran edo 45 minutuko bi zati. Lanaldi murriztuarekin dagokion denbora porportzionalki kalkulatzen da.

Orduak pilatuta: kalkulua horrela egiten da: ordu bat ume bakoitzeko eskola egun bakoitzeko (zure eskolako egun lektiboak) umeak urte bat bete arte edo kontratua bukatu arte. Efektu hauetara, eguna 7 ordu eta 20 minutu direla kontatzen da.

Dagozkizun egunen kopurua Kontrol Administratiboaren Atalean egiten dute (☎ 848 426 989).

Eskaera gurasotasun baimena bukatu eta segituan egiten bada 22 egun inguru dira.

Interinoen kasuan

→ Kontratuaren iraupenaren arabera kalkulatzen da, kontratua bukatu arte geratzen diren lan egunak kontatu behar dira.

→ Kontratu berri bat hartzean berriz eska daiteke gelditzen den denbora.

Edoskitzeak arriskua dakarrenean, eskaera berezia egin behar da

→ Lanpostuaren baldintzek amaren edo haurraren osasunari kalte egin diezaioketenean aplikatzen da baina oso kasu gutxitan onartzen da.

→ **Funtzionarioak:** lanpostuaren egokitzea egiten da. **Eskaera orria.**

→ **Interinoak:** lanpostua ezin bada egokitu kontratua desegiten da (haurdunaldiak arriskua dakarrenean bezala) eta Mutuak egiten du ordainketa. Eskaeran zehaztu arriskuko edoskitzea dela. **Eskaera orria.**



Edoskitzea-eszedentzia bateraezintasuna

→ Laktantzia disfrutatu ondoren lanera itzuli behar da. Laktantziaren ondoren eszedentzia eskatuz gero, disfrutatutako edoskitze egunak bueltatu behar dira, modu ekonomikoan. "Lanaldi garaian umeak edoskitzeko dugun baimena" delako gertatzen da hori. Egun bakoitzeko bueltatu beharreko kopurua altua izaten da. Deskontuaren zenbatekoa jakiteko, deitu nominen atalera: ☎ 848 426 627.

→ Gomendatzen da lehenengo eszedentzia eskatzea eta gero edoskitze baimena, dirua bueltatu behar ez izateko.

Seme-alabengatik familia laguntza (251/93ko Foru Dekretuak 50. Artikuluan)

→ Jaiotako ume bakoitzarengatik eska daiteke (hilean 32 euro inguru, E mailako hasierako soldataren %3a).

→ Familia ugarien kasuan, jasotako kopurua igotzen da. Proporzio honetan da igoera:

3-5 seme-alaba: %30.

6-8 seme-alaba: %35.

8 seme-alaba baino gehiago: %40.

→ Gurasoetako batek bakarrik jaso dezake laguntza. Banandutako pertsonen kasuan gauza bera gertatzen da, horietako batek bakarrik eska dezake laguntza. Kasu horretan, dibortzio-epaiaren arabera izango da.

→ Harreraren kasuan, laguntza hori ukatzen ari da. Errekonozimendua lortu arte eman beharreko urratsak:

1. Laguntza eskatzea.
2. Ezezko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztea.
3. Legezko bideari jarraitzea.

Foru Dekretuaren Artikulua



Seme -alabengatik familia laguntzarako eskabidea



Seme-alaba urritu fisiko edo psikikoengatik familia laguntza (22/1993 Foru Agindua, ekainaren 21ekoa)

→ Kopuru hori kalkulatzeko, kontuan hartzen da E mailaren hasierako soldataren %15a, seme edo alaba urritu fisiko edo psikiko bakoitzeko (hilean 160 euro inguru).

→ Harreraren kasuan, laguntza hori ukatzen ari da. Lortu arte eman beharreko urratsak hauek dira:

1. Laguntza eskatzea.
2. Ukatzeko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztea.
3. Legezko bidearekin jarraitzea.

Seme-alaba urritu fisiko edo psikikoengatik



Diru-sarrerarik ez duen ezkontide edo bikotekide egonkorragatik familia laguntza

Kopuru hori kalkulatzeko, kontuan hartzen da E mailaren hasierako soldataren %3,5a, diru-sarrerarik jasotzen ez duen ezkontideagatik (hilean 37 euro inguru).

Diru sarrerarik jasotzen ez duen ezkontideagatik eskaera



Prestazio ekonomikoak (MUFACE)

→ Seme-alabengatiko edo zaintzapean hartutako adingabeengatiko prestazioa, desgaitasunen bat dutenean

Zenbatekoa

- 1. **Modalitatea:** 83,33 € hilean.
% 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten 18 urtetik beherakoak.
- 2. **Modalitatea:** 417,70 € hilean.
% 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten 18 urtetik gorakoak.
- 3. **Modalitatea:** 626,60 € hilean.
8 urtetik gorakoa, % 75eko desgaitasun-maila edo handiagoa duena eta hirugarren pertsonaren beharra duena.

→ **Erditze anizkoitzagatiko prestazio ekonomikoa**

Bateragarria da erditze, adopzio edo harrera anizkoitzetan amatasunagatiko prestazio bereziarekin.

Zenbatekoa: Jaiotza-egunean edo adopzio-ebazpen judizialaren egunean indarrean dagoen Lanbide arteko Gutxieneko Soldata bider 4, 8 edo 12 ordaintzea, seme-alaba eragileak 2, 3 edo gehiago baldin badira.

→ **Erditze, adopzioko edo harrera anizkoitzagatiko prestazio berezia**

Bateragarria da erditze edo adopzio anizkoitzagatiko ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoarekin.

Zenbatekoa: gertaera eragilearen egunari dagokion kotizazio-oinarriaren % 100, 42 egunetan zehar (nahitaezko sei asteko atsedenaldia). Aldi berean hartutako bigarren seme-alaba edo adingabeen kopuruaren arabera kalkulatzen da.

→ **Beste laguntza batzuk**




Nafarroako Gobernuak ematen dituen dirulaguntzak

→ Mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza ekonomikoa beraien etxeetan bizi daitezen, eta zaintzaileentzako laguntza¹

→ Familia ugarientzako eta guraso bakarreko familientzako laguntzak, entzumen-protesien, preskripzio optikoen eta ortodontziaren ezohiko gastuetarako²

→ Mendetasuna duten pertsonentzako garraio egokitua eta lagundua³

→ Desgaitasuna duten pertsonak⁴



Lizentziak, baimen eta eszedentziak bereziak

6 hilabeteko baimena (enpleguaren banaketa)

Eskaera



Enplegua banatzeko baimena: funtzionarioek zein ordezekoek eska dezakete, beti ere ikasturte osoko lanpostu bat badute (12 hilabeteko kontratua). Lanaldi partzialeko kontratu batekin ere eska daiteke.

Interinoen kasuan kontratua hartu eta berehala eskatu behar da eta soilik otsaila-uztaila aukera eskatu ahalko dute.

Funtzionarioek baimena hasi baino 15 egun lehenago abisatu behar dute gutxienez. Hauek disfrutatzen diren epea aukeratu dezakete; abuztua-urtarrila edo otsaila-uztaila.

Bai interinoek bai funtzionarioek eskaera egitean zehaztu behar dute nomina jasotzeko modua zein izango den: zenbatekoaren % 50a kobratzea 12 hilabeteetan, edo % 100a kobratzea 6 hilabeteetan, gainerakoetan ezer kobratu gabe.

12 urtetik beherakoak zaintzeko lanaldi-murrizketa

Eskaera



Urteko edozein unetan eska daiteke eta ez dago zerbitzu beharren menpe. Murrizketa hasiko da ordezeko pertsona bat dagoenean edo, gehienez, eskaera egin eta hilabetera nahiz eta ordezkorik ez egon. 1/3, 2/5, 1/2 edo 2/3ko murrizketak ordezkatu egiten dira, 1/8, 1/6 eta 1/4 murrizketak ez dira ordezkatu eta edozein unetan gauzatu daitezke.

Eszedentzia

Eskaera



3 urtetik beherako haurra zaintzeko eszedentzia berezia:

- Funtzionarioek eta interinoek (bai bakantetunek bai ordezekoek) eska dezakete.
- **Eskaera orriarekin** batera beste jarduerarik ez egitearen adierazpena eta Erregistro-ziurtagiri indibidualaren (familia-liburua ordeztan du) fotokopia aurkeztu behar da.
- Eszedentzia honekin kotizazioa, antzintasuna eta puntuazioa lanean bagina bezala kontatzen da. Plazaren erreserba ere egiten da eta udan kontratua luzatze aldera aintzat hartzen da.
- Edozein momentutan itzuli daiteke lanera, 15 eguneko aurreabisuarekin.
- Etetektan, haurrak 3 urte bete arte beste behin eska daiteke, baina bloke bat eta hurrengoaren artean 6 hilabete pasatu behar dira.
- **Interinoak:** eszedentzia kontratua bukatu delako eteten bada, lanpostu berria hartzen den egunean bertan berriz eska daiteke zaintzagatiko eszedentzia (ez dira 6 hilabete pasa behar, eszedentzia ez duzulako zuk moztu baizik eta kontratua bukatzearekin moztu zaizulako).
- EAEn eszedentzia hau disfrutatu baduzu eta lekualdatzean Nafarroa ematen badizute, 6 hilabeteak pasa gabe eskatzen ahal duzu arrazoi beragatik eszedentzia.

Beste baimen batzuk

Eskaera



→ Zerbitzu-eginkizunak 6 urtetik beherako adingabeak beren kargura dituzten funtzionarioentzat eta etxetik 50 kilometro baino gehiagora dauden funtzionarioentzat.

→ Ezkontza edo bikote egonkorra: 15 egun natural, ezkontza eguna 15 egun horien barruan egon behar da.

→ Eskubide bereziak dituzten adingabeentzako arreta: bileretara joateko ezinbesteko denbora.

→ Hezkuntza Bereziko zentroetan eskolatutako adingabeentzako arreta: ezinbesteko denbora.

FAMILIA LEGEA

→ Seme, alaba edo familian hartutako adingabea zaintzeko **ordaindu gabeko zortzi asteko guraso-baimena**.

→ **4 egunera arteko ezinbesteko baimen berezia**, senideekin edo bizikideekin lotutako premiazko familia-arrazoiengatik.

→ Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo bigarren mailara arteko ahaidearen **istripu edo gaixotasun larriagatiko**, ospitaleratzeagatiko edo ospitaleratzetik gabeko ebakuntza kirurgikoagatiko **bost eguneko baimena**.

→ **Lanaldia egokitzea kontziliazio-arrazoiengatik**.

Familien Legea deiturikoa ekainean sartu zen indarrean, baina oraindik ez zaigu aplikatu Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileei; lan-kontratuko langileak eta enpresa pribatukoak bakarrik ari dira hobekuntzez disfrutatzen.

Nafarroako Gobernuak errepikatzen digu ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuan **sartutako hobekuntzak** (128. artikulua Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina aldatzen duena) **ez zaizkiela aplikatzen Nafarroako Administrazioko langileei**. Izan ere, Konstituzio Auzitegiak aitortu duenez, Nafarroako Foru Erkidegoak **eskumen eskusiboa eta historikoa du funtzio publikoaren arloan**, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren – NFEBHLO (LORAFNA) – 49.1b) artikulua araberak, honako hau jasotzen baitu: "Bere foru-araubidearen arabera, Nafarroari dagokio Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gaineko eskumen eskusiboa."

Ez dugu ulertzen ustez aurrerakoia den gobernu batek nola ez dituen premiaz sartzen bere araudietan langile publikoentzako hobekuntza horiek. Estatu mailan aspaldi ezarri ziren eta Nafarroan gobernuak, oraindik beste alde batera begira segitzen du dagozkigun eskubideak ukatuz.

Borrokan jarraituko dugu, gure zerbitzu juridikoen bidez zein negoziatio-mahaietan, kontziliaziorako hobekuntza hauek irakasleoi aplikatzeko lehenbailehen Nafarroako hezkuntza publikoan!



www.steilas.eus

Araba

Manuel Iradier 40 • 01005 **Gasteiz**
☎ 945 141 104
araba@steilas.eus

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1. esk. • 48013 **Bilbo**
☎ 944 100 298
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa

Gaztela kalea 16-18, Behea • 20015 **Donostia**
☎ 943 466 000
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa

Joakin Beuntza 4-6, behea • 31014 **Iruñea**
☎ 948 212 355
nafarroa@steilas.eus

